

Sekula ezin izanen dut Osasuna agurtu. Osasuna, esanen nuke, jaio nintzenetik nire zati bat dela. Osasuna nire maitaleetako bat da.

Hala ere, agur esan beharra daukat, ez dakit behin-behinerako edo behin-betirako, bizitza honetan gehien bete nauen, borrokatu dudan, lan egin dudan, sentitu dudan eta disfrutatu dudan gauzetako bati, hainbeste maite dudan klub honen bazkideei laguntza eskaintzen saiatu den Bazkidearen Defendatzaile izateari, alegia.

Jarritako helburua bete dut, hots, aurrerantzean, bazkideok klubarekin lotura egokia izateko bitarteko eraginkorrak izateko oinarri sendo bat ezartzea.

Urte batzuk dira gaixotasun neurologiko batek nire bizitza baldintzatzen duela, eta honek, maiz, egunari, nire izaera suhar eta lanera guztiz emanarekin gatazkan sartzen den moduan aurre egitea eskatzen dit. Gure Klubaren eta gure bazkideen defentsan lan egitera eraman nauen izaera, nire esku-hartze guztietan nagusitu dena, nire ingurukoek eskatzen zidaten bezala zaintzeak axola ez zidan arren ere.

Azpimarratu nahi dut, ez da agur bat, beti egonen naiz Osasunari bihotza ematen hego-harmaileko nire eserlekuan eta beti laguntzeko prest, hala klubaren zuzendaritzari, nola eskatzen didan edozein bazkideri.

Maria aipatu nahiko nuke. Bere laguntzarik gabe ezingo niokeen hainbeste ordu eskaini klubari. Eta Martin ere aipatu nahiko nuke, zeinak edozein momentutan hego-harmailetara ihes egingen baitigun.

Osasunarekiko dudan pasioak zuen begietara motzagoa den errealitatea estali badu barkamena eskatzen dut.

*Sadarren elkar ikusiko dugu!
Aupa Osasuna!*